



1.EKOETXE ENPRESAREN BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresa euriko ura berreskuratzeko sistemak egitea da. Euri-urak berreskuratzeko eraikinen estalkiak erabili behar dira. Horrela, ura teilatu edo terraza bateko hustubideen (canalones) bidez biltzen da, zorrotenetan (bajantes) zehar bideratzen da, eta, azkenik, andel batean biltegitratzen da.

Biltegi hori lorategian edo gainazalean egon daiteke, etxebizitzaren espazio batean. Biltegiaren sarreran iragazki bat jartzen da zikinkeriak eta nahi ez diren elementuak saihesteko, hala nola hostoak.

Gure balio proposamenak hauek izango dira:

- Gure bezeroei, etorkizunean egon daitezken udako edo beste sasoi-tako lehorteei aurre egiteko aukera emango diegu.
- Arkitekto bat(gure enpresako langile bat) etxera joango da planoak egitera, eta konpromisorik eta kosturik gabeko aurrekontua emango dio.
- Gure materialak kalitate oso ona izango dute, eta berrezkuragarriak izango dira.
- Gure komertziala zure etxera joango da, informazio eta aholkularitza gehiago emateko gure enpresari buruz.
- Egiten ditugun produktu eta instalazio guztien 10 urteko bermea emango dugu, arazorik ez edukitzeko.
- Gainera, neurrizko diru-kopuru baten truke, berme gehigarri bat eskaintzen dugu.



-Urtero, gure bezero guztien instalazioetan funtzionamendu ona rebisatuko dugu, inolako kosturik gabe.

-Gure produktua etxe eta eraikuntza berri guztietara pertsonalizatu izango ahal da.

-Gure bezeroei aukera emango diogu produktuen ordainketa kuotetan zatitzeko.

-Gure enpresak, beste enpresa batzuek ez bezala, bezeroari arreta emango dio eguneko 24 orduetan, eta edozein ustekabetan erantzungo du.



